

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak: Gure enpresarentzako lantoki bat behar izango dugu, hori hasteko norbaiten etxea edo lonja bat izan daiteke, baina gure enpresarentzako ez da guztiz aproposa. Hori dela eta, gure enpresa handitzen den heinean, bulegoak erosiko ditugu, gure jarduerak modu aproposan eramateko.



Gainera, logikoa denez, langileak behar izango ditugu, zabor-sistemaren eraikuntza eta mantentze-lana egiteko.

Beste aldetik, telefonoa, sare sozialak, web-orrialdea eta bezeroekiko harremanak eramateko norbaiten laguntza behar izango dugu, baina hasieran guk geuk egingo dugu.

Bestalde, behar izango ditugun materialak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu, baina oso konplexuak eta bereziak direnak guk sortuko ditugu.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Proiektua diseinatzeko arkitektoen eta ingeniarien talde bat behar izango dugu, proiektuaren izaera estruktura garatzen duena. Hasieran, web orrialde bat egiten dakien informatikari edota diseinatzaile den norbait beharko dugu; eta azkenik, antolaketa egokia beharko dugu, hasieran lauren artean egin dezakeguna, baina enpresa handitzen den ahala, administratzailearen bat behar izango dugu.



Finantza-baliabideak: Gure enpresa ezaguna egiteko ez dugu dirurik beharko, web-orrialdeekin, publizitatearekin eta jendearen bidez egin ahal dugulako, baina geroago publizitatea ezinbesteko izango da. Gure proiektua asmo handikoa denez, enpresa martxan jartzeko diru-laguntzak behar izango ditugu. Horretarako, gure proiektuarekiko interesa daukaten inbertitzaile



ezberdinekin harremanetan jarriko gara, diru-sarrera horiek lortzeko. Hori gutxi balitz, *broker* edo administratzaile baten edo batzuen laguntza beharko dugu, enpresaren egoera ekonomikoa bideratzekori, non, nola eta noiz inbertitu beharko dugun aholkatzeko, etab. ideia arriskutsua delako.